

LANTOKI PARTEKATUA

Dokumentuaren edukia

Erabilpen baldintza orokorrak.....	1
Barne araudia.....	4
Animazio zerbitzuaren kontaktua.....	4

ERABILPEN BALDINTZA OROKORRAK

Lantoki Partekatua, zer da?

Lantoki Partekatua telelanari eta ikasketei bakarrik dedikatua den gela bat da. Baigorriko herriko etxean dago.

Erabiltzaileak

Lan ala ikasi nahi duen pertsona orok espazio horretan sartzeko baimena du.

Instalazioak

Lantoki partekatuan lan egiteko eta ikasteko gela bat dago, sukalde ttipi batekin.

1. Lan egiteko eta ikasteko gela

Gaur egun, lau bulego daude. Bulego bakoitzak F gisako bi prisa, RJ45 prisa bat, USB prisa bat eta USB-C prisa bat dauzka.

Gelan internet sarea dago. Konexioa Wi-Fi ala Ethernet harien bidez egin daiteke. Hariak hornituak dira, baita Ethernet/USB-C egokigailuak ere, Ethernet sarrerarik ez luketen ordenagailuentzat.

2. Sukaldea

Sukaldean kafe-makina et aura berotzeko makina daude. Janaria berotzeko makinarik ez dago, ezta lekuan berean jateko lekurik ere. Ezin da apairurik egin Lantoki Partekatuan. Herriak ura, kafea eta dutea edateko material eta elikagai guztiak hornitzen ditu. Gastu hauek erabilpen tarifyan kondatuak dira (beherago so egin).

3. Komunak

Komun publikoak korlearen beste aldean dira, Lantoki Partekatuaren parean.

Izen-emaite modalitateak

Izen-emaitea egin aitzin, entsegu egun bat eskainiko da erabiltzaile berri bakoitzari. Horretarako, erabiltzaileak bere izena eman behar dio herriko etxeko animazio zerbitzuari.

Horren ondotik, Lantoki Partekatua erabiltzen segitu nahi baldin badu, Izen-Emaite Inprimakia osatu beharko du eta herriak bere izen-emaitea onar dezan goaitatu beharko du (egun batzuk iraun dezake).

Erabilpen modalitateak

Astean 3 egunez ala 6 egun-erdiz gehienez erabil daiteke Lantoki Partekatua. Erabilpen luzeagoa baldintzatua eta denboran mugatua izanen da.

Herriak beste gela ttipi bat prestatzen du erabiltzaileak isolatu nahi badu telefono deien, bideokonferentzien edo elkarrizketen egiteko. Gela aitzinetik erreserbatu behar da.

Bi erabilpen mota daude :

- Noiztenkako erabilpena
- Erabilpen erregularra (harpidetzarekin)

Noiztenkako erabiltzaileek Herriko Etxeko irekitze orenak errespetatu beharko dituzte eta Herriko Etxeko harreratik pasa beharko dire Lantoki Partekatuan sartu aitzin, haien presentzia jakinarazteko eta erabilpena ordaintzeko, gelan sartu aitzin. Harpidedunek kode bat errezibituko dute gelara sartzeko kanpotik eta ordutegi zabalago batean.

Erabilpen ordutegiak

- Noiztenkako erabilpena: astelehenetik ostiralera, goizeko 8:30etatik 12:30etara eta arratsaldeko 2:00etatik 6:00etara.
- Erabilpen erregularra: astelehenetik ibiakoitzera 6:00etatik 21:00etara.

Tarifak

1. Noiztenkako erabilpena

Egun-erdi bat baino guttiagoko erabilpena egun-erdi bat bezala fakturatuko da.

Taula: Egun-erdi eta eguneko tarifak

Iraupena	Ikasle	Beste
Egun-erdia	urririk	5€
Eguna	urririk	8€

2. Erabilpen erregularra (harpidetza)

Taula:

Erabilpenaren iraupena asteka	Ikasle	Beste Tarifa murriztua	Beste Oinarrizko tarifa
Egun-erdi 1 / astea	urririk	7€	15€
Egun 1 ala 2 egun-erdi / astea	urririk	10€	25€
2 egun ou 4 egun-erdi / astea	urririk	15€	45€
3 egun ou 6 egun-erdi / astea	urririk	20€	60€
4 egun ou 8 egun-erdi / astea	urririk	25€	70€
5 egun ou 10 egun-erdi / astea	urririk	30€	80€

“Beste” tarifarentzat:

- Harpidetzari gehituko zaion erabilpen egun-erdi ala egun oro horrela fakturatuko da: 3€ egun-erdia eta 5€ eguna.
- Tarifa murriztua onartuko zaie ondoko baldintzak betetzen dituztenei:
 - Partikular gisa ordaintzen dutenei
 - Tarifa murriztuaren galdea ginen duten eta onartuko zaien entitateei: orduan, herriak eta entitateak *Hitzarmena* izenpetu beharko dute.

Gelaren erabilpena astean 3 egun ala 6 egun-erdi baino gehiagokoa baldin bada, denboran mugatua eta baldintzatua izanen da.

Erreserbatze modalitateak

Erabiltzaile bakoitzari Lantoki Partekatuko Egutegian sartzeko erabiltzaile izen eta pasahitz bat emanen zaizkio, bere lekua bertan erreserba dezan berantetik erabilpenaren bezperan. Jadanik lau erabiltzaile dauden momentuetan ezin da erreserbatze gehigarri egin. Erreserbatzerakoan langileei lehentasuna emanen zaie ikasleekiko.

Ordaintze modalitateak

Ordainketak Herriko Etxean berean egin beharko dira. Hiru modalitate daude ordaintzeko:

- Euroz diruz
- Euroz txekez
- Euskoz diruz

Orainketa guziak gela erabili aintzin egin beharko dira. Harpidedunek ondoko hiru hilabeteetako erabilpena ordainduko dute aitzinetik. Epe laburrago batentzat ordaintzeko posibilitatea izanen da. Noiztenkakoak Herriko Etxeko harreratik pasa beharko dira Lantoki Partekatura sartu aitzin, egun-erdiaren ala egunaren ordaintzeko. Erreserbatu gabe gela erabiltzen duen orok egun oso bat ordaindu beharko du. Herriko Etxean izena eman ez duen orori tokia uztea galdeginen zaio.

BARNE ARAUDIA

Erabiltzailea engaiatzen da:

- Erabilpen Baldintza Orokorrak errespetatzea,
- Gela altxaturik eta garbi uztea (Ethernet kableak eta baxerak barne),
- Gela libre uztea garbiketarako ostiraletan, arrastiriko 6:00etatik goiti,
- Ez apairurik egitea lekuan berean,
- Isiltasunean lan egitea,
- Sekretu profesionala errespetatzen duen lan joera erakustea,
- Material berezirik gabeko aktibitatea ukaitea,
- Beste erabiltzaile bat baldin badago gelan, telefonoan ala bideokonferentziaz ez hitz egitea,
- Materiala berreskuratzea lana eta gero (galduko den materialarekiko Herriko Etxeak ez du ardurarik hartuko),
- Edozein lokaleko edo materialaren degradazioaren ardura hartzea eta bere asurantzari deitzea zorigaiztoentzat,
- Norberaren erreserbatze egunen eta orenen aldaketa erraztea erabiltzaile berri batzuen harrera ahalbidetzeko,
- Animazio zerbitzuarengana jotzea galderarik, arazorik, disfuntzionamendurik edo desadostasunik balego (arazo larrienak Herriko Kontseiluan aipatuko dira).

ANIMAZIO ZERBITZUAREN KONTAKTUA

Bixente HIRIGARAI LABÉGUERIE

Herriko animazioaren laguntzaile

Baigorriko herria

06.43.62.23.22

animazioa@baigorry.fr